

VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2016

5. kronika: **Hizkuntza transmisioa****Lehen hizkuntza Iparraldean**

Lehen hizkuntza da haurtzaroan etxean mintzatu den hizkuntza. Ipar Euskal Herrian hiru aukera, edo euskara bakarrik, edo euskara frantsesarekin, edo frantsesa bakarrik. Beste hizkuntza batzu gertatzen dira baina oso guti.

Lehen hizkuntza azken 20 urteetan (%)

Jendetza 16 urte +	1996 212.000	2001 222.000	2006 230.000	2011 240.000	2016 250.000
Lehen hizkuntza					
euskara bakarrik	27	25	22	20	16
euskara + frantsesa	5	6	6	5	6
frantsesa bakarrik	68	69	72	75	78

Iturria : inkesta soziolinguistikoa.

Azken 20 urteko 5 inkestak aztertzen baditugu, ohargarri da euskara bakarrik transmititzen zela % 27 haurrentzat 1996an eta % 16 orain, 11 punturen galtzea orotara, hauetan 4 punturen galtzea azken 5 urteetan. Denbora berean sortzez frantsesa bakarrik ukan dutenen ehunekoa %68tik % 78ra igan da. 10 puntuz emendatu da,, 3 puntu gehiago inkesta bakoitz azken hiru inkestetan. Bestalde bi hizkuntzak ukan dituzten haurren ehunekoa biziki apal egon da lehen eta orain, % 5 eta 6en artekoa.

Behar beharrezkoa da dinamika honi birgune bat ematea nahi badugu euskararen jarraipena segurtatu. Ikus zer gertatzen den 16-25 urtekoen lehen hizkuntzarekin soziolinguistika inkestetan zehar.

16-25 urtekoen lehen hizkuntza azken 20 urteetan (%)

16-25 urtekoak	1996 28.000	2001 26.000	2006 29.000	2011 27.000	2016 26.000
Lehen hizkuntza					
euskara bakarrik	11	14	6	8	5
euskara + frantsesa	10	11	8	6	6
frantsesa bakarrik	79	75	86	86	89

Iturria : inkesta soziolinguistikoa.

2001eko inkesta izan zen baikorrena, 16-25 urtekoen lehen hizkuntzari begira. % 14k euskara bakarrik ukan zuten haurtzaroan. % 11k euskara frantsesarekin eta % 75ek frantsesa nagusi. Beraz hiru laurdenak frantsesez sortu dira eta laurden bat nolazbait euskaraz.

Bost urteren buruan egoera osoki aldatu zen. 2006ko inkestan 16-25 urtekoen adin-taldea 3.000 biztanlez emendatu zen baina lehen hizkuntza euskara bakarrik ukan zutenen ehunekoa 8 puntuz erori zen, %14tik % 6ra, jatorrizko elebidunek ere % 3 galdu zuten. Aldiz lehen hizkuntza frantsesa bakarrik ukan zutenen ehunekoa 11 puntuz emendatu zen, % 75etik % 86ra iganez. Hots katastrofe bat gertatu zen euskararen transmisioan.

Eta geroztik 10 urtez egoera hein berdintsuan egon da, doi bat areagotuz 2016ko inkestan : 16-25 urtekoetan jatorrizko euskaldunen %3 galdu dute eta jatorrizko erdaldunek % 3 puntu irabazi. Gaur egungo gazteetan % 89ik haurtzaroa frantsez hutsean iragan dute. 10 gazteetarik bakar batek euskaraz mintzatu da haurtzaroan, euskaraz bakarrik edo euskaraz eta frantsesez.

Gainera elebitasuna ere ahul dago familietan, 16-25 urtekoen %6arekin. Duela 35 urte elebitasuna sartu zen eskoletan, urte bakoitz gehiago, eskolierren % 35eraino eta % 45 ama eskoletan. Zergatik eskola eta familiaren arteko ezberdintasun hori ?

Ondorioz erran dezakegu itxuraz familia bidezko euskararen transmisio agortu dela eta karga osoa eskolaren gain dela. Geroxago ikusiko dugu 3-15 urteko seme alabak dituzten guraso euskaldunekin gauzak hobetu direla.

Euskaldunak lehen hizkuntza eta adinaren arabera

Ikus dezagun zer bilakatzen den lehen hizkuntza. Euskaldunak hartzen baditugu, 3 kategoria bereiz ditzazkegu .

- Lehen hizkuntza euskara eta orain euskaldun, hauek dira jatorrizko euskaldunak edo euskaldun zaharrak (gero eta gazteago badira ere)
- Lehen hizkuntza frantsesa eta orain euskaldun, hauek dira euskaldun berriak.
- Lehen hizkuntzak euskara eta frantsesa eta orain elebidun, hauek dira jatorrizko elebidunak.

Hiztun guziak hartzen baditugu badira beste bi kategoria :

- Sortzez frantsesa eta orain frantsezdun hauek dira jatorrizko erdaldunak edo erdaldun zaharrak.
- Sortzez euskara eta orain frantsezdun, hauek dira erdaldun berriak.

Elebitasun motak (euskaldun, elebidun hartzaile ala erdaldun) lotura handia du lehen hizkuntzarekin. Euskaraz sortu direnak euskaldun dira %84 eta frantsesez sortu direnak frantsesdun oraino neurri handiagoan %88. Jatorrizko elebidunek dute hizkuntza egoera hauskorrena. Bi herenek

euskara atxiki dute (% 67), heren bat elebidun hartzaile(%18) edo erdaldun (% 4) bilakatu dira. Horiek hola hizkuntzak mugikor dira hein mugatu batean eta hain zuzen mugikortasuna da hizkuntza gutituen ahulezia bat.

Euskaldunen tipologia lehen hizkuntza eta adinaren arabera (%)

Euskaldunak	Iparralde	65 eta +	50-64	35-49	25-34	16-24
Jatorrizko euskaldunak	65	81	71	60	39	24
Jatorrizko elebidunak	19	15	17	24	27	23
Euskaldun berriak	16	4	12	16	34	53

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Tipologia honek adierazten du euskararen bilakaera adinaren arabera. 65 urtez goragokoetan euskaldunzahar anitz (%81) eta euskaldunberri guti (%4).

Gero hiztun gazteagoetan egoera aldatu da euskararen kaltetan. Lekuko zaharrenen eta gazteenen artean jatorrizko euskaldunak %81etik %24ra jautsi dira 10 puntu galduz adin talde batetik bestera. Aldiz, baldintza beretan, euskaldun berriek 50 puntu irabazi dute, %4tik %53ra iganez.

Adin-talde gazteenean, 16-24 urtekoetan, haustura bat ageri da. Aitzinagoko adin taldearekin konparatuz jatorrizko euskaldunak 16 puntu galdu dituzte (%24 versus %40) eta alderantziz euskaldun berriek 19 puntu irabazi (%53 versus %34). Orain gazteenetan erdiak baino gehiago euskaldunberri dira (%53).

Zenbakiek erakusten dute hizkuntzaren jarraipena dela gertakizun nagusia eta euskarak irabazi gehiago egiten dituela adin-talde gazteenetan. Lehen familia bidezko transmisioa nagusi zen, orain eskola bidezko transmisioa erakinkorrago da.

Familia bidezko transmisioa jendetza osoan

Jendetza osoa hartzen badugu, euskaldunak eta erdaldunak, nabari da Euskal Herriko familiek frantsesa bakarrik transmititzen dutela neurri handian, gaitasunaren arabera baino gehiago. Erdaldunak %70 dira eta frantsesaren transmisioa %78koa da. Aldiz euskaldunak %20 gara eta euskara bakarrik transmititzen dute burasoen %16k. . Frantsesa eta euskara elkarrekin transmititzen dute burasoen %6k. Itxuraz elebidun hartzaileek frantsesa transmititzen dute.

Haurren lehen hizkuntza, Iparraldeko familietan

Haurren lehen hizkuntza	Buraso euskaldunak eta erdaldunak
<u>Orokorrean</u>	
Seme alaben lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 16
euskara frantsesarekin;	% 6
frantsesa bakarrik.	% 78
<u>Buraso gazteetan</u>	
2-15 urteko haurren lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 6
euskara frantsesarekin;	% 11
frantsesa bakarrik.	% 83

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Bikote gazteetan, tendentzia hau areagotzen da. Frantses bakarraren transmisioa %83, euskara bakarrarena %6. Frantsesa eta euskara elkarrekin transmititzen dute burasoen %11k.

Bururatzeko, ezar dezagun Ipar Euskal Herria Euskal Herri osoan hizkuntzen familiako hizkuntzen transmisioari begira.

Lehen hizkuntza lurraldeen arabera (%)

Jendetza 16 urte +	EUSKAL HERRIA 2.647.000	E. Autonomia Erkidegoa 1.864.00	Nafarroa 534.000	Ipar Euskal Herria 249.000
Lehen hizkuntza				
euskara bakarrik	15,1	17,5	6,2	15,9
euskara + erdara	5.4	6,0	3,1	5,8
erdaraa bakarrik	79,5	76,4	90,8	78,2

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Ez dezagun ametsik egin, gehienik jarraikarazten diren hizkuntzak Hegoaldean gaztelania eta Iparraldean frantsesa dira. Euskara erdararen laurdena da hizkuntzen jarraipenean. Gainera euskaldun guziek beste

hizkuntza badakigu, erdaldunak maizenik elebakar direlarik. Beraz euskararen erabilera askoz zailago da eta kartsutasun berezia eskatzen du.

Horiek hola, Iparraldean euskararen jarraipena ez doa erraiten den bezen gaizki. Jatorrizko elebitasuna partikatzen badugu, euskararen jarraipena Iparraldean Euskal Herri osokoa baino puntu batez hobea da (% 18,8 % versus % 17,8), puntu eta erdi gutiago Autonomia Elkidegoari konparatuz (%20,5) eta Nafarroan baino 11 puntu gehiago (% 7,75).

Azken 20 urte hauetan, han eta hemen euskararen familia transmisioa gutitu da eta eskola transmisioa emendatu. Iparraldean bereziki ohargarri da familia, hautzaindegia eta eskolaren arteko lankidetza hobetuz doala. Euskarren jarraipenaren onetan.

Erramun Bachoc, 2017-11-15.